



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

GRADU AMAIERAKO LANA

KAZETARITZA GRADUA / 2020-2021 IKASTURTEA

Erreportaje sakona

HIRU ALDIZ IKUSEZIN

EGILEA: Olatz Silva Rodrigo

ZUZENDARIA: Imanol Murua Uria

Leioa, 2021eko maiatzaren 21a

Hiru aldiz ikusezin

Iqbal Hakkouk. Azima Alaoui. Etorkizun hobea izateko utzi zuten gaztetan Maroko. Euskal Herrian daude orain biak. Bakarrik datozen neska adingabeek bizi duten egoeraren isla dira.

Olatz Silva Rodrigo | 2021/05/20

Pianoa jotzea da Iqbal Hakkouken ametsa, eta piano-irakasle izatea. Musika entzutea gustuko du, musika arabiarra. Marokon jaio zen duela 19 urte, Meknes herrian. Bost neba-arrebetako laugarrena da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaituta dauka bertan, urte bat errepikatu behar izan bazuen ere. Marokon jaio arren, Hakkouk jada ez da Marokon bizi. Batxilergoa hasita zeukanean, 16 urterekin, erabaki bat hartu zuen: Maroko utzi eta Europara joango zen.

Hakkoukek hartutako erabakia ez da erabaki isolatu bat, neska gazte askok egiten duten hautua da. Gero eta gehiago dira euren herrialdea utzi eta bizitza duin baten bila bidea hasten duten neska adingabeak. Migrazio-prozesua mutilekin lotu da beti, baina emakumeen presentzia areagotuz doa. Horien artean adingabeak ere badaude. Gero eta gehiago badira ere, ikusezin izaten jarraitzen dute.

“Gurasoei ideia ez zitzaien asko gustatu, baina onartu egin zuten”, azaldu du Hakkoukek Iruñeko Katalunia kaleko taberna batean Coca Cola edaten duen bitartean. Bakarrik joan nahi zuen arren, lehengusinarekin egin behar izan zuen bidaiari: “Lehengusinak arazoren bat izan zuen familiarekin eta Europara nirekin bidaltzea bururatu zitzaion familiari”.

Hakkouken amak lagundu zituen bi lehengusinak Tangerrera (Maroko); 302 kilometrokoa da bi herrien arteko distantzia. Pateraz gurutzatuko zuten Mediterraneo itsasoa. Patera batean lekua lortzeko mafiaren bati ordaindu behar zaio: “4.000 euro ordaindu behar dira; jendeak haien etxeak, lurrak edota autoak saltzen ditu diru hori lortzeko”.

Tangerreko autobus geltokian pateraren arduradun bat zegoen bi nesken zain. Pateran joango ziren gainerako pertsonak zeuden etxera eraman zituen. Ama Meknesera

bueltatu zen. Patera hartuko zuten egunean, “baso oso handi” bat gurutzatu behar izan zuten, eta, gero, mafiak patera puztu arte itxaron. Ibilbidea errekan hasi zuten. Haien aurretik beste patera bat zihoan, afrikar beltzez beteta. Hakkouken ontzian zihoazenak marokoarrak ziren. “Poliziak zubi batean atzeman gintuen eta beste patera zulatzea lortu zuten”, adierazi du. Taberna Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ondoan dagoenez terrazan ikasleen zarata da nagusi. Hakkoukek bere istorioarekin jarraitu du: “Nire paterak atzera egin behar izan zuen”.

Bigarren saiakera izan arte Hakkouk bere herrian egon zen. Bi aste inguru beranduago saiatu zen berriro. “Ramadan garaia zen, eguzkia sartu zenean autoz eraman gintuzten Tangerretik Asilah (Maroko) herrira”, azaldu du Hakkoukek. Basoa gurutzatu behar izan zuten: “Itxaron behar izan genuen, polizia basoan baitzegoen”. Gauerdian atera ziren itsasora eta hurrengo eguneko eguerdian heldu ziren Espainiako kostaldera. “Gogoratzen dudak bakarra”, dio Hakkoukek, “gasolinaren usaina da; enbarazu egiten zidan. Usainarengatik pixka bat zorabiatuta heldu nintzen baina esango nuke Cadizera ailegatu ginela”. Hamabi ordu eman zituen pateran.

Patera ez da Mediterraneo itsasoa gurutzatzeko bide bakarra. Azima Alaoui, Fez (Maroko) hiriko neska gaztea, kamioi batean ezkutatuta heldu da aurten Andaluziara. Nahiago du benetako izena ez eman. Bidea 15 urterekin egin du. “Kamioi batean ezkutatu nintzen eta laguna beste batean”, adierazi du, “zoritxarrez, laguna ikusi zuten”. Tangerretik Algecirasera joan zen kamioi batean ezkutatuta. Gutxi gorabehera bi orduko iraupena izan zuen bidaiak. Berdez inguratutako Donostiako Uba zentroan bazkaldu berri du Alaouik. Denbora libre du orain.

Nesken presentzia txikia

Zentro desberdinetatik igaro ondoren Euskal Herrian daude orain hiru neskak. Iqbal Hakkouk adinez nagusia da orain. Ekainean 19 urte beteko ditu. Nafarroan dago, Iruñean. Azima Alaoui adingabea da oraindik, 15 urte ditu. Gipuzkoan bizi da, Donostian.

Biak hamazortzi urte baino gutxiago zituztenean heldu ziren Espainiar Estatura. Europar Batasunaren 97/C 221/2003 Ebazpenak gazte horientzako definizioa du: “Hirugarren herrialdeetako hemezortzi urtetik beherako gazteak, horien gaineko arduraren duen helduren batekin batera joan gabe estatu kideen lurraldera iristen direnak, eta

herrialdeak legez edo usadio eta ohituren arabera asetzen baditu, benetan horien ardura duen helduren baten zaintzapean ez dauden bitartean”.

2019an urtearen amaieran bakarrik datozen gazte adingabeen erregistroan 12.417 gazte adingabe zeuden babes-zerbitzuen tutoretzapean, Estatuko Fiskaltzaren datuen arabera. Horietatik 1.088 neskek ziren. 2020an Gipuzkoako Foru Aldundiak lau neska adingabe hartu zituen tutoretzapean eta 132 mutil. Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, urte berean 368 gazte adingabe hartu zituen babespean. Horietatik hamar ziren neskek. Aurtengo lehenengo hiruhilekoa bukatuta, Bizkaiak 220 mutil eta hamalau neska zituen babespean. Nafarroako Gobernuak 222 gazte hartu zituen tutoretzapean 2019an, 220 mutil eta 2 neska. 2020an, berriz, 64 gazte hartu zituen babespean, guztiak mutilak.

Nesken presentzia txikiagoa dela adierazten dute datuek baina badago datuek errealitatea islatzen ez dutela sinesten duen jendea. Elena Ayarza EAEko Arartekoko Haur eta Nerabeen Bulegoko arduraduna da. Berak uste du neska gehiago ailegatzeko direla Euskal Herrira: “Ziur aski neska gehiago heldu dira guregana baina, ez dakit zergatik, ez dira hauren gizarte-zerbitzuetara ailegatzeko”. Mutilek, heldu bezain pronto, adingabeak direla frogatzen dute. Neskek, batzuetan, nahiago dute adingabeak direla ez esan: “Agian uste dute bizitzeko beste moduren bat izan dezaketela eta horregatik ez zaie interesatzen adingabeak direla esatea”.

Herrialdea uzteko nahia

Hamaika dira gazte horiek haien herrialdea uzteko dituzten arrazoiak. Save the Children Gobernu Kanpoko Erakundeak hiru taldetan sailkatzen ditu faktore horiek 2018an argitaratutako *Los más solos* txostenean. Batetik, faktore pertsonalen arabera etorri direnak daude; gazteek haiek nahi duten bizi proiektua bete ahal izateko uzten dute euren herrialdea. Alaoui helburu horrekin ezkutatu zen kamioian. “Ikasteko eta, batez ere, etorkizun on bat izateko”, dio ahots lasai eta leunarekin.

Beste gazte askok tratu txar eta abusuen ondorioz egiten dute ihes. Gazteek arbuia egiten dute familiek erabaki duten eta hirugarren pertsonekin hitzartu duten etorkizuna. Horrez gain, Espainiara bidaiatzen duten haur askoren behartutako desplazamenduaren arrazoi nagusia babesa edo leku seguru bat bilatzea da. “Gatazka armatuetan edo gerra zibiletan urrun ihes egitea beste aukerarik ez dago”, dio Save the Childrenen txostenak.

Arrazoi horiek ez ezik, neskek beste zergati batzuk ere badituzte ihes egiteko, CEAR Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordeak 2020an argitaratuko *Vidas que Cruzan Fronteras* txostenean azaltzen duen moduan: “Genero-indarkeria da emakume askok ihes egiteko arrazoia. Emakumeek beren jatorrizko gizarteetan errotutako kultura-ereduak, irudimen-ereduak eta genero-itxaropenak hausten dituzte”.

Ana Guerra hezitzailea da eta Martzillako (Nafarroa) adingabeen zentroan egiten du lan. Mutilek bezala, neskek etorkizun hobea bilatzen dutela dio, baina ez da hori zergati bakarra: “Neskek askatasuna bilatzen dute, haztea eta beraientzat bizitzea, garatu gabe dituzten trebetasun guztiak aurkitzea, Marokon eramango ez duten bizitza izatea”. Guerrak dio “presio soziala” dela emigratzeko arrazoia, mugimendu- eta portaera-askatasuna bilatuz.

Adinaren balioa

Adingabe izateak edo adinez nagusi izateak guztiz baldintzatzen ditu nesken egoera eta aukerak. Adingabearen Babes Juridikoari buruzko legeak dio Espainian dauden adingabe atzerritarrek hezkuntzarako, osasun-laguntzarako eta oinarriko zerbitzu eta gizarte-prestazioetarako eskubidea dutela, Espainiako adingabeen baldintza berberetan. “Atzerritarra baino lehen, adingabea zara”, adierazi du Ayarza Arartekoko kideak.

Arazoa hamazortzi urte betetzen dituztenean ailegatzen da: “Atzerritartasun-legea zorrotasun osoz aplikatzen hasten da”. Migrazio-politikak Estatuaren eskumenekoak dira; EAEko eta Nafarroako administrazioek ezin dute lege horretan ezarritakoa aldatu.

Espainiara heldu bezain pronto Estatuak adina zehazteko prozesua jartzen du martxan. Adina zehazteko praktika batzuek eztabaida sortu dute, desegokiak izatea egotzita. Izan ere, aurten Nazio Batuen Erakundeko Haurren Eskubideen Batzordeak Espainia gaitzetsi egin du migratzaile adingabe baten eskubideak urratzeagatik. Neska gaztea 16 urterekin heldu zen Madrileran 2017an. Bere jaiotze-data adierazten zuten eskolako agiriak eta txertaketa-txartela aurkeztu zituen. Horien balioa ukatu eta adina zehazteko prozesua egin zioten. Guztiz biluztu egin zuten bularrak eta genitalak esploratzeko. Auzitegi-medikuaren probekin fiskaltzak 18 urte zituela ondorioztatu zuten. Espainiako Estatuak adingabeen eskubideak urratu dituela adierazi du Batzordeak eta biluziak eta esplorazio fisikoak debekatzea eskatu du.

Praktika egokiak sustatzeko Espainiako lege- eta auzitegi-medikuntzako institutuek jardunbide egokien dokumentu bat sortu zuten 2010ean. Praktika bakarra egitea nahikoa ez dela dio agiriak. Balorazioa egiteko elkarriketa, miaketa fisikoa, karmo-hezurraren azterketa erradiologikoa eta hortzeriaren erradiografia egin behar dira. Probak adituak diren medikuek egin behar dituzte. Gazteari hizkuntza ulergarri batean azaldu behar zaio zehatz-mehatz dena eta kontuan hartu behar dira adin-estimazioan egon daitezkeen akatsak.

“2005-2006 urteetan adingabeak EAera iristen hasi zirenean haurren baliabideetan sar zitezkeen ala ez erabakitzekeo prozesua desastrea zen, inolako bermerik gabe egiten zena”, azaldu du Ayarzak. Adina ziurtatzen duen dokumentua izan arren, zehazteko probak egitera derrigortzen zituzten gazteak eta azalpenak gaztekeraz ematen zizkieten, ulertzen ez duten hizkuntza batean. Hala ere, egoera aldatuz doala azaldu du Ayarzak eta EAEn orain jardunbide egokien dokumentua “nahiko ondo” jarraitzen dutela. Faltsutu izanaren aztarnarik ez duen dokumentu batekin datozen gazteei ezin zaie adina zehazteko probarik egin eta gazteek azalpen guztiak ulertuko dituzten hizkuntza batean jaso ditzaten bermatu egiten da.

Euskal Herrira helduera

Gazte batzuen helburua Euskal Herrira ailegatzea bada ere, beste batzuen xedea ez da hori. Hala ere, arrazoi desberdinengatik Euskal Herrira ailegatu eta bertan geratzen dira. “Haien artean informazio-zirkuituak daude”, azaldu du Ayarzak; “batzuk Donostiara datoz Facebook bidez argazki politak bidali dizkietelako; badakite nora joan behar duten eta nora ez”.

Azima Alaouik argi zuen Donostiara heldu nahi zuela: “Marokoko lagunek esaten zidaten Donostia ondo zegoela, ondo egongo nintzela bertan”. Algecirasetik Malagara autobus bat hartu zuen eta beste bat Malagatik Donostiara. Donostiara heldu bezain pronto Poliziarengana jo zuen. “Adingabea nintzela esan nien eta lo egiteko tokirik ez nuela; Uba zentrorra eraman ninduten”, gogoratu du Alaouik. Ile ilun eta luzeak aurpegiaren zati bat estaltzen dio. Urtarrilaren hirugarren astetik dago Uban 15 urteko gaztea.

Iqbal Hakkoukek Frantziara joan nahi zuen. Lehengusinarekin batera Algecirasera heldu zenean Gurutze Gorriak autobus batean sartu zituen gainerako

neskekin batera. Hatz-markak hartu eta La Cañada neskontzako zentrora eraman zuten, Villamartinera (Cadiz). Hiru hilabete egon ziren bertan.

Hakkoukek eta lehengusinak osaba zuten Euskal Herrian. Osabak, ezagun batzuen laguntzaz, gazteak Nafarroara ekartzea lortu zuen. Denboraldi bat berarekin egon ostean Donostiara eraman zituen osabak Hakkouk eta lehengusina. Poliziak Uba zentrora bidali zituen baina bi aste besterik ez ziren egon bertan. Iruñera bueltatu ziren gero eta berriro ere Poliziarengana joan ziren. Argaray adingabeen behaketa eta harrera zentrora eraman zituzten bi neskek. Oso zentro txikia zen, mutilek lurrean egiten zuten lo. Martzilla zentrora aldatu zituzten momentuan.

Urtebete eman zuten Martzillan. Zentroko neska bakarrak ziren. Bertan egon ziren urte osoan ez zuten ia hezkuntzarik jaso: “Oporretan egongo bagina bezala geunden”. Soilik azken hilabeteetan gaztelerazko klaseak izaten hasi zirela gogoratu du. La Cañada zentroan hasi zen bere kabuz gaztelera ikasten, telebista eta mugikorrarekin ibiltzeko uzten zieten ordubeteen.

Martzilla zentroa Zakan enpresen aldi baterako batasunaren esku dago. Bertatik ateratzen diren gazteak pisuetara doaz; aurre-autonomia pisuetara, normalean. “Ni Navarra Sin Fronteras enpresaren pisu batera eraman ninduten 2020ko udan”, azaldu du Hakkoukek. “Lehengusina ez zen nirekin etorri. Nahiago dut berari buruz ez hitz egin”, gaineratu du burua jaisten duen bitartean.

Hiru mutilekin egon zen pisuan otsailera arte. Bertako esperientzia ez zen ona izan: “Dirua lapurtzen zidaten, hezitzaileak oso gutxitan egoten ziren gurekin eta bazkaltzeko cateringa izaten genuen”. Aurre-autonomia pisuak gazteak hazten laguntzeko pentsatuta daude, etorkizunean bakarrik bizi daitezten. Cateringa izateak eta hezitzailea haiekin gutxi egoteak ez ziela horretan laguntzen salatu du Hakkoukek. Kostatu egin zitzaion arren, gobernuarekin hitz egitea lortu zuen. Tuterako Sin Fronteras enpresara aldatu zuten otsailean.

Arrosadia auzoko (Iruñea) pisu batera joan zen. “Tuterako langileak hilabeteen behin ikusten nituen bakarrik, dirua ekartzera etortzen zirenean”, azaldu du Hakkoukek. Aurtengo martxoaren bukaeran, Zakan enpresak egindako egitasmoari esker Iruñeko neska batekin bizitzera joan da Hakkouk. Zakan enpresa jende solidarioa ari da Nafarroan bilatzen, gazte horiei logela bat alokatu diezaien.

Pisuetan egon den bitartean ikasten aritu da Hakkouk. Nahiz eta Marokon Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu, berriro egon da Helduen Bigarren Hezkuntza egiten. Kutxazain laguntzaile ikastaroa ere egin du. “Marokotik Bigarren Hezkuntzako titulua bidali didate duela gutxi eta homologatzera joan naiz”, azaldu du pozik Hakkoukek. Titulua homologatzen badu ez du Bigarren Hezkuntza errepikatu behar izango. Nahi duena ikasi ahal izango du.

Sorgin gurpila

“Atzerritartasunari buruzko araudi guztia atzerritarrak ez iristeko dago pentsatuta”, ohartarazi du Ayarzak. Estatura ailegatzen diren gazteek traba asko dituzte dokumentazioa lortzeko. Bete behar duten lehenengo dokumentua MENA (gaztekeraz, *Menor Extranjero/a No Acompañado/a*, bakarrik datozen gazte adingabeak) fitxa da. Poliziak betetzen duen agiria da, gazteen datuak jasoz. Gazteek fitxan emandako datuak egiaztatu behar dituzte haien herrialdeko agiriak aurkeztuz. Agiriak jasota, kontsulatura joan behar dute pasaporte eta NAN marokoarra egitera.

Azima Alaoui ere dokumentazioaren zain dago. “Bidaltzen diotenean pasaportearen eskaera egingo dugu”, azaldu du Ramy Kamel Alam El Din Ubako programaren arduradunak. “Jaiotza-agiria ezinbestekoa da baina gutun nazionala bidaltzen badiote, hobe”, gehitu du. Gutun nazionalarekin pasaporte lortzeko tramiteak arinago egiten dira. “Oso astiro doa dena; lehen bi hilabete tardatzen genuen pasaporte bat lortzeko baina orain sei edo zortzi hilabete itxaron behar dugu”, dio Kamelek.

Kamelek aitortu du gazte gehienak pasaportearekin etortzen direla baina ez dutela esaten. “Oporretako bisa batekin datoz, gonbidapen antzeko batekin”, azaldu du; “bisarekin ezin dira herrialdean geratu eta bisa egin dion pertsona aurkitzen badute zigorra jartzen diote”. Horregatik ez dute esaten pasaporte dutenik.

Egoitza-baimena Atzerritarren Bulegoan eskatu behar dute. Hainbat hitzordu eta dokumentu aurkeztu ostean jaso dezakete. Baimen hori berrituz joan behar da. Horretarako, gazteek lan-kontratu bat behar dute edo ikasten egon. Adingabeak baldin badira lan egiteko baimena ematen diete; hamazortzi urte baino gehiago badituzte, ordea, ez. Beatriz Vera Nafarroako Zakan enpresako hezitzailea da. Bere ustez, baimenaren kontuak ez du zentzurik: “ezin duzunean lan egin baimena ematen dizute eta lan egin dezakezunean lan egiteko baimena kentzen dizute; oso arraroa da”.

Lan- eta egoitza-baimena sorgin gurpil bat dira, amaitzen ez den soka. Verak azaldu duenez, urteak daramatzate dokumentazioarekin lanean eta “zoramen hutsa” da. Bekak eskatzearekin alderatu du dokumentazioaren kontua: “Ez du inork laguntzen, ez dago telefono zenbakirik, postaz bidaltzen diezu mezu bat eta ez dute erantzuten; prozesua nahita dago eginda hain korapilatsu, atzerritarrak hel ez daitezen”.

Gizabanakoa gauza bihurtzen duen etiketa

MENA etiketa duten gazteek estigmatizazio fenomeno kezkarria jasaten dute Espainiako hegoaldeko mugan, UNICEF Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsek 2019an *Los derechos de los niños y niñas migrantes no acompañados en la frontera sur española* argitaratutako txostenak ohartarazten duenez: “Ordena publikoko mehatxutzat eta arazotzat hartzen dira eta erakundeen eta herritarren gaitzespena jasaten dute”.

Diskriminazioa ez da Espainiako hegoaldeko kontua. Izan ere, arazo hori azalarazi nahi izan dute hainbat gaztek Nafarroan “*Una mochila, una vida*” antzezlanean. Asinsound, Bidebitarte Kooperatiba eta Ados teatroaren arteko koprodukzioak bakarrik datozen gazte adingabeen ahotsak entzunarazi nahi izan ditu, haien integrazioa eta ahalduz sustatuz. Antzezlanean salatu egin dute MENA terminoaren erabilera: “MENA oso hitz negatiboa da; gazteak gauza bihurtzen ditu”. Gazteek antzezlanean aitortu egiten dute MENA hitzak gaizki sentiarazten dituela, arriskutsuak balira bezala ikusten dituztela, lapurtzera, arazoetan sartzera edota lana kentzera etorriko balira bezala; baina ez da horrela.

Iqbal Hakkoukek antzezlanean hartu du parte. Berak ere ez du gustuko MENA hitza. Andaluzian ez zen inoiz gaizki sentitu. “Hutsik duzun lekua betetzen dute; hitz batekin, barre batekin, berdin dio zerekin”, nabarmendu du eskumako begiaren azpian orban txiki bat duen gazteak. Desberdina izan da Martzillan: “Hemen jendeak gaizki begiratzen zaitu”. Bidaiatu egin duten pertsonen eta gazteegiak direnen artean alderaketa egin du Hakkoukek: “Kanpoan egon direnak askoz jatorragoak dira; hogeitau urte dituzten gazteak ez dira inoiz etxetik atera eta ez dute ezer ulertzen”.

Pandemia garaian Hakkoukek Ramadana igaro zuen Martzillan. Ramadana denean eguzkia sartu arte ez dute ezer jaten ezta edaten ere. “Egunean zehar lo egiten dugu Ramadanean” azaldu du Hakkoukek. Martzillan ez zieten hori egiten utzi. “Hezitzaileen goizeko txanda zazpitan etortzen zen eta ordu horretan esnatuta egotera

derrigortzen gintuzten, Ramadan izan ala ez”, jakinarazi du. Egunean zehar lokartu egiten bazen falta jartzen zioten.

Ana Guerra hezitzailea Martzillan zegoen lanean momentu horretan: “Koranak dio hilekoa duten emakumeek egun horietan ez dutela Ramadana egin behar; gero errekueratu ditzakete egunak”. Hakkoukek hiru egun luzatu zuen Ramadana. “Neskek normalean ez dute esan nahi hilekoarekin daudenik”, adierazi du Guerrak. Hakkoukek ezkutuan jaten zuen. “Ez nuen nahi gainerakoek hilekoarekin nengoela jakin zezaten”, aitortu du Hakkoukek. “Errespetuagatik ere ez nuen mutilen aurrean jaten”, gehitu du. Hilekoa ezkutatzear gain, profil matxistak zituzten mutilengandik hainbat iruzkin matxista jaso behar izan zituztela jakinarazi du Martzillako hezitzaileak, eta, zoritxarrez, berrogeialdia zela eta, ezin izan zirela pertsona horiengandik urrundu.

Martzillako jendearen jarrera positibotzat jo du Guerrak: “Oso integratzaileak izan dira, gizonak baino askoz gehiago onartu dituzte, edo, gutxienez, herritarren mespretxua ez da hain handia izan, mutilekiko mespretxuarekin konparatuta”. Ez da ohikoa zentroan neskak ikustea. Guerrak uste du gizartearen begietara “ahulagoak” diruditela, horregatik da onarpena “integratzaileagoa”. Guerra ez dago ziur benetako onarpena den ala ez: “Nire ustez, hain arrunta ez delako, gizarteak hobeto jokutzen du, kasu askotan hipokresia handiarekin eta beste batzuetan gizatasun eta maitasun ikaragarriarekin”.

Desberdina da Ubako egoera. Bertakoentzat MENA hitza termino deskribatzailea besterik ez da, programako arduradunak azaldu duenez: “Gazteek oraindik ez dute gizartea ezagutu; ezta termino horren etiketa negatiboa ere”. Azima Alaouik hilabete gutxi daramatza Gipuzkoan. Klasean jendea ezagutu du eta harreman ona dauka haiekin, baita zentroko gainerako mutilekin ere. Momentu honetan zentroko bigarren solairuko jangela huts batean dago baina gero gainerako gazteekin batzeko duten egongelara joango da, denbora librea aprobetxatzera.

Kamelek dio onarpena gehienbat gazteek erakusten dutela. Hala ere, ez du zalantzarik: arrazakeria egon badago. Zentroko gazteek kalean diskriminazioa jasaten dute. Uban saiatu egiten dira diskriminazio hori lantzen; ekintza desberdinen bitartez gazteei egoera horien aurrean nola jokatu erakusten diete. Hala ere, arrazakeria “justifikaezina” dela argi utzi nahi du Kamelek, “ulertezina” dela. “Beste aldeia sentsibilizatu beharko litzateke baina hori ez da gure lana”, gehitu du.

“Magrebtarrak dira gehienbat etiketa negatiboekin eta delinkuentziarekin lotzen dituzten mutil gazteak”, dio Ayarza Arartekoaren bulegoko kideak. Batzuetan datuek hori baieztatu egiten dutela aitortu du: “Kalean bizi dira eta euren prekariedade-egoerak ebasketa txikiak egitera derrigortzen ditu, bizirauteko”. Ezin dira guztiak delitugile bezala orokortu, baina datu batzuk dauden heinean, susmo horren pean kalifikatzen dituzte guztiak. “Etxean bizi banaiz eta egunero jaten badut seguruenik gutxiago pasatuko zait burutik lapurtzea, egunero bazkaltzen ez badut baino”, gehitu du. Ayarzaren iritziz, neskak “estigma horretatik kanpo” geratzen dira.

Ikusezintasun hirukoitza

Eskasa da bakarrik datozen neska adingabeen inguruko informazioa. Emakumeak eta migratzaileak ez ezik, adingabeak izateak ere areagotu egiten du neskek jasaten duten ikusezintasuna. Adingabeak, emakumeak eta migratzaileak. Hiru ezaugarri horiengatik ikusezintasun hirukoitza jasaten dute bakarrik datozen neska adingabeek.

Neska gazteak ikuspegi biktimista batetik begiratzen dituztenez, mutilekin konparatuta babes handiagoa ematen zaie, Kamel Uba lehen harrera zentroko arduradunak adierazi duenez: “Ez dugu nahi neska bat kalean egotea, hori ezin da gertatu; horregatik bilatzen ditugu konponbide gehiago”.

Ikusezintasun hirukoitz horren aurrean Arartekoko bulegoaren kideak argi dauka bere iritzia: “Neska gazteak ikusgai egin behar dira”. Ikusezin izaten jarraitzen badute, gizarte demokratiko batean eta giza eskubideak errespetatzen dituen gizarte batean ezin izango dute merezi duten babesa lortu. Ikusezintasun horri aurre egin behar zaiola pentsatzen du ere Vera Zakan enpresako hezitzaileak: “Ahotsa eman behar zaie, gutxi izan arren, ikus dadila neskak ere hemen daudela”. Verak azpimarratu du “ausardi ikaragarria” dutela, Hakkouk zuzen begiratzen duen bitartean: “Ni ez nintzateke ausartuko 30 urterekin haiek egin dutena egitera”. Ez du ulertzen jendearen pentsamendua. Bere ustez, inork ez du bere bizia arriskatzen lapurtzera etortzeko edota lana gainerako pertsoneri kentzeko. Neska horiek ere haien eskubideak dituztela adierazi du, eta errespetatu egin behar direla.

Azima Alaouik ere ez du Marokora bueltatu nahi; nahiago du Donostian egon. “Bi hiriak dira politak, Donostia zein Fez, ez nuke jakingo esaten zein den politagoa”, gehitu du. Etorkizuna argi du Alaouik: “Erizaina izan nahi dut, erizain izatea gustatuko litzaidake”.

Iqbal Hakkoukek nahiago du Euskal Herrian geratu, nahiz eta asko sufritu duen. Bisitan bakarrik bueltatu nahi du. Bere egoerak ahalbidetzen badu, abenduan familia bisitatzera joateko aukera izango duela adierazi du, irribarre zabala erakutsiz. 2019ko maiatzaren 28tik ez du familia ikusi. Bigarren Hezkuntzako titulua homologatzea lortzen badu, erizaintzaren laguntza erdi-mailako gradua ikasiko du. Alde batera utzi beharko du piano-irakasle izatearen ametsa, independentea izatearen truke.

Leihoak

Nesken presentzia txikiagoa dela adierazten dute datuek baina badago datuek errealitatea islatzen ez dutela sinesten duen jendea.

Adingabe izateak edo adinez nagusi izateak guztiz baldintzatzen ditu nesken egoera eta aukerak.

Adingabeak baldin badira lan egiteko baimena ematen diete; hamazortzi urte baino gehiago badituzte, ordea, ez.

Gazteek antzezlanean aitortu egiten dute MENA hitzak gaizki sentiarazten dituela, arriskutsuak balira bezala ikusten dituztela.

Ezin dira guztiak delitugile bezala orokortu, baina datu batzuk dauden heinean, susmo horren pean kalifikatzen dituzte guztiak.

Emakumeak eta migratzaileak ez ezik, adingabeak izateak ere areagotu egiten du neskek jasaten duten ikusezintasuna.

1.go zatidura

Hamazortzi urte, banalerro gordina

Gabriela Nchama Obonok hamazazpi urterekin utzi zuen bere hiria: Malabo (Ekuatore Ginea). Ez du bere benetako izena aipatu nahi. “Ama hil zen, aita edaten hasi zen, bikoteak beste neska batekin haur bat zuela jakin nuen, osaba ere hil zen eta gure egoera ekonomikoak okerrera egin zuen; bizitza aldaketa bat behar nuen”, gogoratu du Obonok. Bilboko Alde Zaharreko Belostikale kaleko terraza batean dago. Larunbat arratsaldea denez, denbora igaro ahala tabernako mahai guztiak betez doaz. “Madrilen bizi zen amonak deitu zidan”, jarraitu du Obonok. Bera zaintzera joatearen truke eskola ordainduko ziola esan zion. Hala ere, Madrilen ezin izan zen eskolara asko joan, amonak laguntza asko behar zuelako. Handik urtebetera hil zen amona eta Obono kalean geratu zen. Bi aste eman zituen kalean, Fuenlabradan, klaseko lagun batek etxean hartu zuen arte. Lagun horrek Euskal Herrian laguntza aurkituko zuela esan zion. Bilbora joan zen Obono, Madrileko lagun horrek emandako kontaktu batengana. Momentu horretan adinez nagusia zen.

Tutoretzapean eta familiaren laguntzarik gabe dauden gazte migratzaileek gainerako gazteek baino lehenago hartzen dituzte haien gain erantzukizunak eta independentziara bakardadean eta zaurgarritasun handiagoarekin iristen dira. UNICEF Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtzak 2019an *Los derechos de los niños y niñas migrantes en la frontera sur española* argitaratutako txostenak ohartarazten duenez, “adin-nagusitasuna banalerro bat da gazte askorentzat eta egoera bereziki ahulean jartzen ditu, zailtasunak dituztelako lana eta etxebizitza lortzeko”.

Arartekok *Familia erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin* txostena argitaratu du aurten; 18 eta 23 urte bitarteko gazteen egoera aztertu du. Txostenaren arabera, emantzipazioari laguntzeko programan sartzen ez diren gazte askok kalean amaitzen dute. Lan prekario, ezegonkor eta gutxi ordaindutakoetan aritzea da geratzen zaien aukera bakarra. “Gazteak arrisku-egoeran daude, erakunde kriminalek eta haien ahultasunaz aprobetxatu nahi diren pertsonak erakar ditzaketelako”, salatu du Arartekoko txostenak. “Jarraitutasuna” eta “sendotasuna” izan behar dituzten zenbait neurri beharrezkoak dira.

Gabriela Nchama Obono, hilabete batzuk lagunaren etxean egon ondoren, kalean geratu zen berriro, laguntza “gehiegi” izan zuelako jada. Momentu horretan Bilboko Alde Zaharreko Iturribide kalean kokatu dagoen Helduen Hezkuntza ikastetxean zegoen ikasten eta bertako lagun batek etxean hartu zuen. Koronabirusa heldu zenean, hala ere, berriro kalean geratu zen. “Lagunak esan zidan berak ere ezin zuela pisua ordaindu eta pisua utzi behar nuela”, adierazi du Obonok infusioa hartzen duen bitartean. Sorbaldara ailegatzen zaion ilearekin mototsa egin du; errazagoa da horrela tragoa ematea. Beste hilabete bat kalean.

Bilboko gizarte-larrialdietako udal zerbitzuan (GLUZ) laguntza eskatu zuen baina berak azaldu duenez, “buelta asko” eman zizkioten. Hilabete hori kalean egon ostean, elkarte batean sartu zen. Nahiago du elkartearen izena ez aipatu. “Hasieran oso ondo egon nintzen baina logelako pisukidearekin arazoak izaten hasi nintzen”, aitortu du Obonok. Bitartean, Bilboko taberna batean hasi zen lanean; hamabost euro hiru orduren truke. Beldur zen pisuan bere gauzak lapurtuko zizkioten, horregatik lagun baten etxera eraman zituen bere gauza guztiak. “Behin pisura ailegatu nintzenean, plaza galdu nuela esan zidaten, gauza guztiak bertatik eraman nituelako”, adierazi du Obonok. Bere gauzak utzi zituen pisura joan zen: “Lagunarekin astebete egon nintzen baina gero Bartzelonara joan zen”.

Bi aste kalean, berriro. Ondo ezagutzen duen ezkutaleku batean egin zuen lo GLUZek kasu egin zion arte. Alde Zaharreko hotel batera eraman zuten. Ekainera arte egongo da bertan: “Gero ez dakit zer egingo dudan”. Obonok aitortu du neska izateagatik eman diotela plaza hotelean. Mutila izango balitz, egoera desberdina izango litzateke: “Neskei lehentasuna ematen diete bortxaketa eta tratu txarrak jasateko arriskua dutelako”.

24 urte ditu orain Gabriela Nchama Obonok. Helduen Hezkuntza ikastetxean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten ari da, heldu zenean titulua legalizatu ez zuelako. Espainiara heldu zenean turismoa ikasi nahi zuen arren, ideia aldatu egin du. Erizaintzaren laguntza gradua ikasi nahi du.

Momentu honetan errolda berri behar du Obonok. Hiru aukera ditu: “Norbaiti ordaindu ahal diot bere etxean errolda nagan, logela bat alokatu dezaket edo fikziozko errolda egin”. Fikziozko errolda kalean bizi den jendearentzat udalak egiten duen errolda da; horren zain dago Obono. Gainerako dokumentazioa lortzeko beste hiru

aukera daude: ezkontzea, izatezko bikotea izatea edota lanpostu batean kontratatzea, 900 euroko gutxieneko soldatarekin eta gizarte segurantzarekin egindako legezko kontratu batekin. “Nork kontratatuko du dokumentaziorik ez duen pertsona bat?”, egin du galdera Obonok, “inork ere ez”.

Obonok “zorte handiko pertsona” bezala deskribatzen du bere burua: “Amak asko lan egin zuen guk dena izateko: ikasketa ona izan dut, lagunak, familia eta bikotea”. Bizi izandakoagatik damutzea ez da aukera bat berarentzat; “ondo pasatzen” saiatzen da. Etorkizunean Malabora bueltatzea gustatuko litzaioke. “Diruarekin”, dio barrez. Bere tokia Ekuatore Ginea da. Hori da bere herrialdea: “Kanpoan zaudenean, moldatzen saiatu arren, desberdin sentituko zara, zure etxea zure etxea da”.

2. zatidura

Bakoitzak bere sistema

Gazteek babes desberdina jasotzen dute bizi diren tokiaren arabera, gizarteratzearen arloan eskumena erkidegoek dutelako. EAEn adingabeen tutela foru aldundiek hartzen dute. Egoitza harrera baliabideak gizarte arrisku larrian dauden adingabeentzako hainbat programa eskaintzen ditu.

Bakarrik datozen gazte adingabeen kopurua 2001ean areagotu zen Bizkaian. Araban eta Gipuzkoan, berriz, 2007 eta 2008 urteetan. Aldundiek gazte horiei arreta emateko programa zehatzak sortu zituzten, gainerako programetan lekurik ez zegoelako. Aurretik existitzen ziren egoitzak egokitu zituzten: Zornotzako zentroa Bizkaian, Uba zentroa Donostian eta Bideberria Gasteizen. Zentro horietan balorazioa egin eta beste zentro batzuetara bidaltzen dituzte.

Uba borondatezko sarrera-zentroa da; ez dituzte gazteak bertan egotera derrigortzen. Hiru edo lau hilabeteko behaketa-prozesu bat egin eta beste egoitza batzuetara bideratzen dituzte. 2020an 144 gazte pasatu ziren Ubatik. Horietatik lau izan ziren neskak.

Emantzipaziorako prestatzeko programa ere badago, gazteek autonomiarako gaitasunak eskura ditzaten. Urtebete igaro daiteke 18 urte betetzen dituztenetik inklusio-sisteman sartzea lortzen duten arte.

Neskak, gehienetan, ez dituzte atzerriko adingabeei arreta emateko programara bidaltzen. 15-16 urteko neskak oinarriko programako soberako plazetara bideratzen dituzte eta 17-18 urtekoak inklusio-sistemara, emakumeentzako baliabideetara.

Nafarroan adingabeen tutoretza Nafarroako Gobernuak hartzen du. Neska-mutilak Nafarroara heltzen direnean Argaray adingabeen behaketa eta harrera zentrora bideratzen dituzte. “Bi astetan balorazio moduko bat egiten zaie eta hortik beren beharretara gehien egokitzen den baliabidera bideratzen dituzte”, azaldu du Julen Bengoetxea Nafarroako Zakan enpresako hezitzaileak. Arazoak dituzten gazteak badira Ilundain behaketa eta harrera zentrora bidaltzen dituzte eta gainerakoak Martzillara. Egonaldia luzeagoko zentroak dira. Ilundainen nerabe migratzaile zein gazte autoktonoak daude. Martzillan, berriz, migratzaileak bakarrik.

Enpresa desberdinek egiten dute lan gazte migratzaile adingabeekin. Zakan enpresak, Martzillako zentroa bideratzeaz gain, aurre-autonomia pisuak ere baditu, gazteak autonomiaz bizitzeko prestatzeko. Adingabeak diren bitartean pisuetan egon behar dira, Nafarroako Gobernuak haien babesa bermatu behar duelako. Adinez nagusiak direnean, autonomia lortzeko finkatuta dituzten helburuak bete behar dituzte. Helburuak lortzen dituztenean autonomia programara bidaltzen dituzte.

“Autonomia programan logela isolatu eta garestietan sartzen dituzte eta ez dira gizartean bat ere integratzen”, salatu du Bengoetxeak. Egoera ikusita, lan bide berri bat jarri du martxan Zakanek. Pertsona eta familia solidarioak ari dira bilatzen Nafarroan gazte horiek haien etxeetan jaso ditzaten. Horren helburua gazte horien gizarteratzea sustatzea eta alokairua merkeagoa izatea da.

Ipar Euskal Herrian boluntarioz osatutako Etorquinekin kolektiboak egiten du lan gazte migratzaileekin. Irène Ithursarry kolektiboaren parte da. Gazteak euren etxeetan aterpetzen dituzte. Bitartean, La Cimade elkarteak edo abokatuek gazteen urrats administratiboak egiten dituzte. Adingabetasuna ezagutarazteko txosten bat osatu behar dute.

Txosten hori Pirinio Atlantikoetako departamentuko ASE (Aide Social à l’Enfance) egituran aurkeztu behar dute. ASEk ebaluaketa egiten die gazteei: “Bi edo hiru hilabetez aterpetzen ditu gazteak, galdera anitz egiten dizkiete eta presio handia jasaten dute”. Gazteen adingabetasuna onartzen badute haien ardurapean geratzen dira. 18 urterekin berriro txostena egin behar dute egonaldi-agiria lortzeko: “Ez da deus irabazia”. 21 urte bete arte ASEren ardurapean egoten dira gazteak. Onartzen ez dituzten gazteak kolektibora bueltatzen dira, egun batetik bestera kalean uzten dituztelako. Kolektibotik igaro diren 115 gaztetatik 62 adingabe onartu ditu Pirinio Atlantikoetako departamentuko ASE egiturak. Horietatik bi izan dira neskak, biak onartuak.

Keleka Makasi Kongoko Errepublika Demokratikoko gazteari adingabetasuna onartu zioten hamazortzi urte bete baino bi aste lehenago. Bere bizitza arriskuan ez jartzeko, ez du izena adierazi nahi. Makasik ez zuen inoiz bere herrialdea uztea pentsatu baina eskolara joateko aukera bakarra zen: “Kongon gerra eta miseria zegoen; eskolara joateari utzi nion familiak ordaindu ezin zuelako”. Familiak Makasiren erabakia onartu zuen, ez zegoelako beste modurik eskolara joateko.

Hemeretzi urte eta erdi ditu orain Makasik eta ASEren ardurapean dago Baionan. Gustura dago bertan batxilergoa ikasten. Ez du baztertzeko bere herrialdera bueltatzeko ideia, “gerra amaitzen bada”.